



EBAZPENA (espedientea: R 02/2008 HIRU.)

Osoko bilkura

Javier Berasategi Torices jn. (lehendakaria)

Joseba Andoni Bikandi Arana jn. (lehendakariordea)

Juan Luis Crucelegui Gárate jn. (mahaikidea)

José Antonio Sangroniz Otaegi jn. (idazkaria)

Vitoria-Gasteizen, 2008ko uztailaren 23an.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren (aurrerantzean Auzitegia edo LDEA) osoko bilkuran goian adierazitako pertsonak bildu dira eta Joseba Andoni Bikandi Arana jauna izan da hizlaria. Bilkuran, beherago azaltzen den ebazpena eman da HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAK (aurrerantzean HIRU) Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren (aurrerantzean LDEZ) 2008ko martxoaren 5eko probidentziaren aurka jarritako errekursoaren espedientean (R 02/2008 espedientea); izan ere, probidentzia horren bidez ez zen onartu Elixabete Salvatierra andreak, HIRUren ordezkari moduan eta haren izenean, LDEZren 3/2008 espedientean (ustez Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legeko 1. artikuluan ezarritakoaren kontrako jardunak egin dituelako hasi den horretan) eskatutakoa: hitzarmen bidez prozedura amaitzea erabakitzeko.

EGITATEAK

1. 2008ko otsailaren 25ean, LDEZk hartutako ebazpenaren bidez HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUARI (HIRU) buruzko zehapen espedientea hastea erabaki zen, 2008ko urtarrilaren 21ean garraiolarien tarifak %5 igotzea gomendatu zuelako. Gomendio hori hurrengo eguneko idatzizko prentsan eta prentsa digitalean jaso zen, Zerbitzuaren ebazpenean jaso bezala.
2. 2008ko martxoaren 4an LDEZri aurkeztutako idazkian HIRUK hauxe eskatu zuen:
 - LDEZk hasitako zehapen prozedura hitzarmen bidez amaitzeko.
 - prozeduraren izapidea eteteko, harik eta prozedura hitzarmen bidez amaitzeko eskaera ebatzi arte.



3. 2008ko martxoaren 5eko probidentzian, LDEZk ebatzi zuen ez zela onartuko prozedura hitzarmen bidez amaitzeko eskaera, espediente horretan ezin delako horrelako erabakirik hartu. Ondorioz, zehapen prozedura eteteko eskaerari ezezkoa eman zion.
4. 2008ko martxoaren 13an, Lehiaren Defentsarako uztailaren 4ko 15/2007 Legeko (aurrerantzean LDL) 47. artikulua arabera, HIRUK administrazio-errekurtsioa jarri zuen LDEZk 2008ko martxoaren 5ean emandako probidentziaren aurka, horren bidez prozedura hitzarmen bidez amaitzeko eskaerari ezezkoa eman zitzaiolako. Auzitegiak horren berri izan du.
5. 2008ko maiatzaren 30ean Auzitegiak espedientearen kopia bat eta aurkeztutako errekurtsioaren gaineko txostena eskatu zizkion Zerbitzuari, Lehiaren Defentsari buruzko Araudia onetsi duen otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuko 24. artikuluan xedatutakoa betez.
6. 2008ko ekainaren 3an jaso zen Auzitegian, Zerbitzuak bidali ostean, Zerbitzuak HIRUren aurka hasitako zehapen espedientearen kopia; horrekin batera, gainera, errekurtsioaren xede den probidentzian xedatutakoa osorik berresten duen instruktorearen txostena ere jaso zen.
7. LDEAk, horren gainean gogoeta egin ondoren, 2008ko uztailaren 23ko osoko bilkuran, errekurtsioa ebatzi zuen.
8. HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA interesdun alderdia da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- LDEA-REN ESKUMENA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA EBAZTEKO

Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 52.1. artikuluan hauxe ezarri da: *“Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, debekatuta dauden akordio eta jardunen arloko zehapen-prozedurak amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta ustezko arau-hausleak espedientearen xede diren jokaeren ondorioz lehiaren gaineko ondorioak konponduko dituzten konpromisoak proposatzen baditu eta interes publikoa behar bezala bermatzen bada”*.

Lehiaren Defentsari buruzko Araudiak (261/2008 ED, otsailaren 22koa) manu hori garatzen du; hain zuzen, 39.1. artikuluan, ondokoa ezarri da: *“Ikerketa Zuzendaritzak, ustez debekatutako jokaera izan dutenek proposatuz gero, debekatuta dauden akordio eta jardunen arloko zehapen prozedura hitzarmen bidez amaitzeko jarduketak hastea*



erabaki ahal izango du. Zehapen prozedura hitzarmen bidez amaitzeko hasierako erabaki hori interesdunei jakinaraziko zaie, baita prozeduraren hitzarmen bidezko amaieraren bukaerarainoko gehieneko epearen zenbaketa eteten den ere”.

LDLren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa dela bide: *“Lege honetan eginkizunen, administrazio-ahalen eta prozeduren esparruan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta horren zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, arlo honetan eskudun diren autonomia-erkidegoetako instrukzio eta ebazpen organoei ere egiten zaizkiela ulertuko da, baldin eta Lege horretako 13. artikuluan ezartzen diren eskumenen gainekoak badira”.*

Horrenbestez, lurralde-esparru honetan LDEZari dagokio debekatuta dauden akordio eta jardunen arloko zehapen prozedurak hitzarmen bidez amaitzeko jarduketak hastea, debekatutako jokaerak egiten dituzten ustezko egileek proposatu ostean.

Bestalde, LDLren 47.1. artikulua LDEAri ahalmena ematen dio Zerbitzuaren ebazpenen aurka aurkezten diren errekurtsioak ebazteko, legezko eskubideei eta interesei defentsarik eza edo kalte konponezina eragingo badie.

BIGARRENA.- ERREKURTSOAREN ONARGARRITASUNA

Lehendabizi komeni da aztertzea errekurtsioaren xedea den Zerbitzuaren egintzak defentsarik eza edo kalte konponezinik eragin duen errekurtsogilearen legezko eskubide eta interesetan eta, ondorioz, Auzitegi honen aurrean errekurtsioa aurkez daitekeen LDLren 47.1. artikuluan ezarritakoa betez.

Zerbitzuak 2008ko martxoaren 6an emandako probidentziaren bidez espedientepean dagoen alderdiari ez zitzaion eman zehapen espedientea hitzarmen bidez amaitzeko jarduketak hasteko aukerarik eta, horri lotuta, prozedura erkideak aurrera eginez gero jaso dezakeen zehapenaren zehaztapenean abantaila garrantzitsuak izateko aukerarik.

Auzitegi honen ustez, LDLn ezarritako espedientea hitzarmen bidez amaitzeko prozedura hasteari ezezkoa ematen dion Zerbitzuaren probidentziak LDLren 47.1. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen ditu, hurrengo arrazoiak direla medio:

1. Kontuan hartu behar da espedientepean dagoen enpresak eskatu behar duela prozedura hitzarmen bidez amaitzen has dadin. Hau da, horretarako, enpresak onartu egin behar du lehia oztopa dezaketen egitateetan erantzukizuna duela; horrez gain, lehiaren murrizketa amaitzeko konpromisoak proposatu behar ditu. Alabaina, Zerbitzuaren egintza horrek ez dio errekurtsogileari espedientearen xede diren jokaeren ondorioz lehiari izan diren ondorioak konpontzeko konpromisoak proposatzen uzten; nahiz eta horrela eginez gero zehapenik jasotzea ekidin dezakeen edo azken zenbatekoan murrizketa lor dezakeen. Beraz, bere eskubide eta interesetan eragin larria izan dezake.



2. Araudiko 39.1. artikuluan, espedientea amaitzeko prozedura hasiko den onartzeko edo ukatzeko arautu gabeko eskumena ematen dio Zerbitzuari; baina eskumen hori ezin da izan mugagabea. Horregatik, Auzitegiak berrikusi egin behar du alderdi demandatzaileak hala eskatzen duenean. LDLren 52.1. artikulua arabera Auzitegiari dagokio prozeduraren amaiera ebaztea, Zerbitzuak proposamena egin eta alderdiek konpromisoak aurkeztu ostean. Ahalmen hori prozeduraren hasieratik baliatu behar da, berrikuspena eginez bada ere.

3. LDLren 52.3. artikulua arabera, prozedura ezin izango da hitzarmenaren bidez amaitu LDLren 50.4. artikuluan ezartzen den txosten-proposamena egin bada. Legea aplikatzeko instrukzio eta ebazpen funtzioak bereizten badira Auzitegiak ezin izango du esku hartu Zerbitzuan izapidetzen den instrukzio fasean; esku hartzeko aukera bakarria berrikuspena egitea da. Prozedura hitzarmen bidez amaitzen bada eta oinarririk ez duelako Zerbitzuak prozedura hori hastea onartzen ez badu, Auzitegiak ezin izango du ezer konpondu ebazpen fasean, hain zuzen ere fase hori Zerbitzuaren txosten-proposamena bidali ostean egiten baita.

Hori dela bide, Auzitegiak uste du errekurtoa onargarria dela.

HIRUGARRENA.- HITZARMEN BIDEZKO AMAIERAREN IZAERA ETA NORAINOKOA LEHIAREN DEFENTSARI BURUZKO 15/2007 LEGEAN

Hitzarmen, transakzio edo negoziazio bidezko amaieretan beste prozedura bat hasi behar da eta, horretan, espedientepean dagoen/dauden enpresa edo enpresak konpromiso batzuk beteko dituztela proposatuko dute, betiere bere jardunak lehia askean sortzen dituen arazoak konpontzeko eta etorkizunean horrelakorik berriz ez gertatzeko. Are gehiago, konpromiso horien artean ere sar daiteke enpresaren sektorean lehiaren aldeko ekintzak egitea.

Hitzarmen bidezko amaierak gero eta garrantzi gehiago dauka prebenitzeko baliabide, baliabide eragozle eta lehia sustatzeko baliabide moduan Europako estatuetako lehiaren defentsarako sistema gehienetan; izan ere, sistema horien artean Frantziako azpimarratu behar da, espedienteak ebazteko eraginkortasun handia baitauka herrialde honek. Era berean, Ameriketako Estatu Batuetan, Department of Justice delakoak eta Federal Trade Commission izenekoak antzeko baliabide juridikoak dituzte enprekin prozeduren amaiera negoziatzeko. Gaur egun, gainera, prozeduren %70 “consent decrees” delakoaren bidez amaitzen da. Europar Batasunean, 2007ko urrian, Europako Batzordeak “transakzio-prozedurei” buruzko agiri bat argitaratu zuen eta jendeari kontsulta egiteko sistema bat abiarazi zuen, EB osoko pertsona eta erakundeek oharrak jaso ahal izateko. Ekimen horren ondorioz, Araudi berria egin da, kartelen kasuan transakzio-prozedurak garatzeari dagokionez 773/2004 Araudia (EE) aldatzen duena¹.

¹ Halaber, transakzio-prozeduren garapenari buruzko Komunikazio bat ere argitaratu du, kartel horien kasuan Kontseiluaren 1/2003 Araudiaren (EE) 7 eta 23. artikuluetan ezarritakoa betez hartzeko erabakiak. Interneteko hurrengo helbidean eskura daitezke jasotako agiria eta oharrak: <http://ec.europa.eu/comm/competition/cartels/legislation/settlements.html>.



Espainiako antolamendu juridikoak 16/1989 Legearen azken berrikuntzetako batean jaso zuen hitzarmen bidezko amaiera (36 bis art.); horrela, administrazio-prozeduraren legeria orokorrak dagoeneko ezarrita zuen espedienteak amaitzeko modu hori jaso zen lehiari buruzko legerian. 16/1989 Legearen 36 bis artikuluan arautzen den sistemaren bidez instrukzioa egitean amaituko zen prozedura, egitateak zehazteko plegua egin aurretik; horrela, lehiaren esparruko eskumena duen agintaritzak baliabideak aurreztuko zituen eta enpresek segurtasun juridiko handiagoa izango zuten.

15/2007 Legeak nabarmen zabaldu du hitzarmen bidezko amaieraren norainokoa debekatuta dauden akordio eta jardunen arloko zehapen prozeduran. Beraz, espedientearen xede diren jokaeren ondorioz lehiari egindako ondorioak konpontzeko ustezko arau-hausleek konpromisoak proposatzen dituztenean eta interes publikoa behar bezala bermatzen denean, LDLren 52.3. artikuluan ezarri da prozedura hitzarmen bidez amaitzeko fasea has dadin eska daitekeela; baita egitateak zehazteko plegua egin ostean (karguen jakinarazpena) eta txosten-proposamena Auzitegiari bidali baino lehen ere.

Baliabide berri horren bidez zehapen espedienteak ebazteko bide berria ireki da. Horrela, hain zuzen, interes orokorra errepresio bidetik (zehapenak) babestuko da eta, bestalde, enpresek konpromisoak hartuko dituzte lehia askea sustatzeko eta askatasun hori eragozten duten jokaerarik berriz ez gertatzeko.

LDLren 52. artikulua eta Araudiaren 39. artikulua oinarritzat hartzen dituen araudi berriari esker, gure sistema juridikoan espedientepean dagoen/dauden enpresarekin edo enpresekin prozedurak hitzarmen bidez amaitzeko aukera gehiago dago; bai prozedura hasten den uneari dagokionez, bai konpromisoen edukari dagokionez eta bai horiek onartzeak espedientepean dagoen/dauden enpresari edo enpresei ekarri dizkion/dizkien ondorioei dagokienez ere.

Europako beste sistema batzuen esperientziarekin alderatuta, batez ere arlo honetan garatuenetako bat den Frantziako sistemarekin², eta duela gutxi onartu den Batasuneko transakzio-prozedura berriarekin alderatuta, irudi hori aplikatuz gero negoziazioaren edukia eta prozeduraren azken emaitza alda daiteke. Horretarako funtsezko hiru alderdi hartu behar dira kontuan:

- arau-hauste mota eta espedientearen xede diren egitateen larritasuna,
- ukituta dagoen/dauden alderdiak edo alderdiek proposatutako konpromisoak eta,
- hasteko eskaera prozesuaren zein unetan egiten den (egitateak zehazteko plegua jakinarazi baino lehen edo ondoren).

LDEAk garrantzi handia ematen dio zehapen espedienteak ebazteko bitarteko berri horri. Zalantzarik gabe, bitarteko hori aplikatzeko eremua zabaldu egin da; legeriaren azken berrikuntzaren bidez lehia defendatzeko sistema modernizatu egin da eta Europako sistema abangoardiakoenekin aldera daiteke.

² Interneteko hurrengo helbidean: http://www.conseil-concurrence.fr/user/standard.php?id_rub=259



Ildo horretan, eta prozedura hitzarmen bidez amaitzea arautzen duten xedapenen idazketaren arabera agintaritzek aplikatzeko diskrezio-tarte handiagoa izango dutela kontuan hartuta, LDEAk hiru esparru ezarri ditu bitarteko juridiko hori aplikatzeko. Horretarako, arestian aipatutako hiru alderdiak hartu ditu oinarritzat.

Lehenengo esparru biak zehapen espedientea irekitzen den unearn eta egitateak zehazteko plegua (EZP) lantzen den unearn artean kokatzen dira; eta hirugarren esparrua, EZP jakinarazi ostean eta txosten-proposamena egin baino lehen.

1. Prozedura hitzarmen bidez amaitzea, isunik jarri gabe, Auzitegiari proposamen bat egitea dakarten konpromisoak hartu direlako. Horretarako ezin izan da alde zurretik Egitateak Zehazteko Plegua (EZP) jakinarazi.

Auzitegiaren ustez, hitzarmen bidez amaitzeko prozedura EZP jakinarazi baino lehen hasten bada, eskumena murriztea dakarten jardunen ustezko egileek proposatuta, jokoeraren gaineko konpromisoak hartu eta espedientea negoziatuta amai daiteke; hori gertatuko da, hain zuzen, merkatu jakin batean lehiari lotutako arazoren bat gertatzen denean eta hori konpontzeko jardun azkarra egin behar denean, eta enpresek hartutako konpromisoak horretarako egokiak, proportziozkoak eta nahikoak direnean.

Iraungita dagoen 16/1989 Legean ezarritako prozedura hitzarmen bidez amaitzeko araudian aplikatu diren irizpideak beteko dira, Frantziako Zuzenbidean ezarritako “*procedure d’engagements*” delakoan erabilitakoen antzekoak direnetan³. Gauza bera egingo da, gainera, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 1/2003 Araudiaren (EE) 9. artikuluan araututako konpromisoak hartu direlako amaitzen denean eta iraungi den 16/1989 Legeko 36 bis artikuluan araupetutako prozedura hitzarmen bidez amaitzeko araubidea ezarri denean.

Horrenbestez, kasu horietan, Zerbitzuak espedientean jasotzen diren egiazko eta probatzeko moduko elementuak baloratu ditu lehenbizi; gero erabaki du konpromisoak hartzea izan daitekeela modurik egokiena lehiaren inguruan sortzen diren edo etorkizunean sor daitezkeen arazoak konpontzeko eta espedientean ez dagoela espedientepean dagoen/dauden enpresari edo enpresei zehapen ekonomikoa jartzeko adina arrazoi.

Aintzat hartzekoa da lehenengo esparru honetan Zerbitzuak prebentzio moduan jardun duela, lehiaren inguruko arazorik ez sortzeko baina zehapen ekonomikoa ezartzea proposatzeko asmorik gabe, ez baitago argi LDL urratu denik.

Isunik ez dakarren hitzarmen bidezko amaiera mota hori EZP egin baino lehen gauzatu beharko da; soilik gauzatu ahal izango da EZPren ostean kasu berezi batzuetan.

³ 2004ko azaroaren 4ko Ordonnance 2004-1173 delakoa Interneteko helbide berean dago.



2. Prozedura hitzarmen bidez amaitzea Egitateak Zehazteko Plegua hartu delako. Plegu horretan berariaz jaso beharko dira lehiari dagokionez ustez arau-hausteren bat egin dutenek hartutako konpromisoen proposamenak.

Bigarren esparrua (salaketa bat dela medio edo ofizioz) hasitako zehapen espedienteen gainekoa da; espediente hauek hasteko, zehapen ekonomikoa jartzeko moduko arau-haustea egin behar izan da ordena publiko ekonomikoan. Espedientepean dagoen/dauden enpresak edo enpresek EZP jakinarazi baino lehen prozedura hitzarmen bidez amaitzeko eskatzen badute, Zerbitzuak idatziz jakinaraziko die zein diren modu ofizialean jakinaraziko zaizkien karguak, horien oinarri diren frogak eta prozedura erkideko izapideek aurrera eginez gero jarri daitekeen zehapena. Horrez gain, transakzioa edo negozioa zein esparrutan egin beharko litzatekeen ere jakinaraziko die Zerbitzuak.

Horri dagokionez, LDLren arau-hauste argia gertatu dela kontuan hartuta, aurkezten diren konpromisoen proposamenek nahitaez jaso beharko dituzte hurrengo puntuak:

- argi eta garbi aitortu beharko du alderdiak arau-haustean erantzukizuna izan duela. Horretarako labur azalduko dira xedea, xede horren gauzatzea, egitate nagusiak, legearen arabera duten sailkapena, alderdiak kontu horretan izan duen zeregina eta arau-haustean izan duen parte-hartzearen iraupena,
- berretsi egin beharko du Zerbitzuak horien kontra gauzatuko dituen objektzioen gainean jakinarazpen egokia egin zaiela eta iritzia emateko aukera eskaini zaiela,
- alderdiek berretsi egin behar dute, aurrekoaren ildotik, ez dutela espedientea ikusteko eta entzunaldi berria egiteko eskatuko. Salbuespentzat hartuko da, dena den, Zerbitzuak karguen pleguan transakzio-proposamenak ez jasotzea,
- aurreikusitako egin behar dute jarri zaien isuna murrizteko zein ehuneko ezarriko duen Auzitegiak eta gero adierazi hitzarmen bidezko amaiera prozeduran ehuneko hori onartuko luketen;

Beste alde batetik, enpresak beste konpromiso batzuk ere proposa ditzake, hala nola: Zerbitzuarekin elkarlanean aritzea gaia ikertzeko, sektoreko lehia sustatzeko jarduerak gauzatzea, enpresako buruei eta langileei lehiaren defentsari buruzko prestakuntza eta informazioa ematea (araudia, helburuak, abantailak, etab.) eta etorkizunean enpresan edo sektorean lehiaren defentsari buruzko araudia urratzea eragotzi dezaketen neurri berritzaileak ezartzea.

Fase honetan hasitako hitzarmen bidezko amaieraren ondorioz interes orokorra konpentsatzen duten eta zalantzan jarritako jokaerak eragin dituen lehiaren inguruko arazoak konpontzen dituzten konpromisoak hartzen badira, zehapena murriztu ahal izango da. Ondoren, murrizketaren ehunekoak zehazten dira:



- a) Isuna %10 murriztuko litzateke enpresak egitateak, zuzenbideko oinarriak eta egotzitako karguak onartzen baditu⁴.
- b) Gehigarri moduan, isuna %30eraino murriztuko litzateke espedientepean dagoen alderdiak proposatutako (jokaera) konpromisoen arabera. Konpromiso horiek eragindako kaltea konpontzeko, araudia modu sinesgarrian errespetatzen dela bermatzeko eta lehiaren defentsa sustatzeko izan behar dira.

Proposatutako konpromisoak EZPn jasoko dira, eta gero demandatutako alderdiari edo alderdiei jakinarazi; hauek Zerbitzuari erantzun beharko diote konpromisoak berresten dituztela adieraziz. Interesdun diren hirugarrenei arauzko kontsulta egin ondoren, Zerbitzuak txosten-proposamena egin eta Auzitegiari bidaliko dio. Izan ere, onartutako konpromisoak eta zehapena murrizteko proposamena jasoko dira txosten-proposamen horretan.

Nolanahi ere, Zerbitzuak erabaki behar du EZPren jakinarazpena baino lehen hitzarmen bidezko amaiera hastea onartuko duen; erabaki hori hartzeko, espedientepean jasotzen diren egitateak eta inguruabarrak baloratu eta amaiera hastea komeni den aztertuko du.

Prozedura hastea onartzen denean, ukitutako alderdiek proposatzen dituzten konpromisoak onar daitezten (Araudiko 39.5. artikuluan ezarritako izapideak betez) Zerbitzuaren hasierako ebaluazioan identifikatu diren lehiaren inguruko arazoak konpontzeko erantzun egokia eman beharko dute.

- b) Egitateak Zehazteko Pleguaren (EZP) jakinarazpena egin osteko hitzarmen bidezko amaiera.

15/2007 Legeak lehiaren defentsarako gure sistemari sartu duen berrikuntza garrantzitsuetako bat da EZPren jakinarazpena egin ostean hitzarmen bidezko amaierarako prozedura has daitekeela. Horrela, zehapen ekonomikoa jaso behar duten arau-hausleengana heltzeko aukera eta aplikazio-esparrua lortu da. Hitzarmen edo negoziazio bidezko irudia zabaltzean, beraz, legegileak bitarteko eraginkorra eman nahi izan die agintaritzei, kartelen eta lehiaren defentsaren inguruko beste arau-hauste batzuen kasuan aurre har dezaten eta horrelakoen aurka egin dezaten. Hau da, duela urte batzuk EBeko estatu kide batzuetan lehiaren defentsarako ezarri diren sistemen bidetik jarraitu da.

Zehazki, Frantziako sistemari dagokionez, *non contestation des griefs* (karguei ez erantzutea)⁵ izeneko prozedurak negoziazioaren logika sartzen du orain arte funtsean aginduzkoa eta aldebakarrekoa zen eskubide batean. Jakinarazitako karguei erantzuteari

⁴ Europako Batzordeak 1996ko Komunikazioan ezarri zuen karguei ez erantzuteagatik isuna %10 murriztuko zela (enpresak beste konpromisorik hartu beharrik izan gabe). Baina 2002ko otsailaren 13ko Komunikazioaren bidez neurri hori ezeztatu egin zen, kartelen kontra egiteko errukitasun programei protagonismo handiagoa emateko asmoz. Azkenean, transakzio-sistema berria ezartzean, Batzordeak berriz ezarri du aipatutako neurria Batasuneko prozeduran.

⁵ Lehiaren gaineko Frantziako Zuzenbidean sartu zen 2001eko maiatzaren 15eko 2001-420 Legearen bidez.



uko egiten zaionean, enpresek baldintza normaletan izango zuten isunaren zenbatekoa murriztu dezakete. Horri esker, negoziazio pixka bat sartzen da lehen horrelakorik onartzen ez zuen zuzenbidean, baina soilik zehapenaren zenbatekoari dagokionez. Ildo horretan, fase honetan ezin da eztabaidatu zehapenik, arau-hausterik edo prozedurari lotutako beste zerbait egin den (defentsarako eskubideak edo errekurtoa jartzeko eskubidea). Bestalde, negoziazioaren bidez zehapena are gehiago murriztu ahal izango da horrekin batera enpresek beste konpromiso batzuk ere proposatzen badituzte hurrengo helburuekin: eragindako kaltea konpontzea, sektoreko lehia sustatzea, enpresako edo elkarteko kideak lehiaren defentsaren gainean prestatzea eta gai horri buruzko informazioa ematea (araudia, helburuak, abantailak, etab.) eta lehiaren defentsarako araudia berriz ez urratzeko alarma-sistemak ezartzea. Prozedura hau murrizpen-jokaera mota ezberdinei aplikatu zaie: jokaera aldebakarrei (nagusitasuna edukita egindako abusuak) eta jokaera aldebikoei (akordio horizontalak eta bertikalak)⁶.

LDLren 52. artikulua (Araudiko 39. artikuluekin lotuta) ezartzen duen araudia irekia da eta ez du mugatzen bere aplikazio-eremuan sar daitekeen kasu kopurua edo hasteko unea; alabaina, baldintza bakarra ezartzen du, txosten-proposamena Auzitegiari bidali baino lehen eskatu behar dela. Horri dagokionez, espedientepean dauden enpresei eta lehiaren agintaritzei negoziatzeko eskaintzen zaizkien aukerak EZPre jakinarazpenaren osteko fasean ere ematen dira, baina horretarako ezinbestean bermatu behar da interes orokorrekoa dela eta merkatuen funtzionamendu eraginkorrari lagunduko diola⁷.

Auzitegi honen ustez, eta arauan ezarritakoa betez, alderdiek EZPre jakinarazpena egin ostean eskatu ahal izango dute prozedura hitzarmen bidez amaitzeko. Gainera, zehapen espedientearen izapidea fase aurreratuan duten kasuetan ere aplikatu ahal izango da; hots: egitatezko ikuspegitik eta ikuspegi juridikotik espedientepean dauden enpresei karguak (EZP) jakinarazi ahal zaizkien fasean egon behar da, baina enpresa horiek ezin izan dute karguen jakinarazpena egin baino lehen proposatu prozedura hitzarmen bidez amaitzen hastea.

Fase horretan onartzen diren, interes orokorra konpentsatzen duten eta etorkizunean lehiaren inguruan sor daitezkeen arazoak konpontzen dituzten konpromisoen zioz amaitzen bada prozedura, hitzarmena egin delako, zehapena honela murriztuko da:

- c) Isuna %10 murriztuko da enpresak egitatei, zuzenbideko oinarriari eta egotzitako karguei erantzuteari uko egiten badiu⁸.
- d) Gehigarri moduan, isuna %15eraino murriztu daiteke espedientepean dagoen alderdiak (jokaerari lotutako) konpromisoak proposatzen baditu, eragindako

⁶ Honi buruz, Conseil de la Concurrence delakoaren hurrengo ebazpenetara jo daiteke: décision n° 07-D-33 du 15 octobre 2007 relative à des pratiques mises en oeuvre par la société France Telecom dans le secteur de l'accès à Internet ; décision n° 07-D-21 du 26 juin 2007 relative à des pratiques mises en oeuvre dans le secteur de la location-entretien de linge.

⁷ Bada, 39.4. artikuluan, interesdunak diren hirugarrenei aurkezten zaizkien proposamenak jakinarazteko izapidea ezarri da, bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkez dituzten.

⁸ Vid., *supra* 4. oharra.



kaltea konpontzeko eta lehiaren defentsa errespetatu eta sustatzen dela modu eraginkorrean bermatzeko⁹.

Zerbitzuak erabaki behar du prozedura hitzarmen bidez amaitzen hasia onartzen duen. Hasierako proposamena onartzen bada, negoziazio fasea amaitzen denean helaraziko dio Zerbitzuak Auzitegiari prozedura hitzarmen bidez amaitzeko onartu diren konpromisoak jasotzen dituen txosten-proposamena, honek kontuan hartu eta prozedurari amaiera emango dion ebazpenean sartzeko, Araudiko 39.5 eta 6. artikuluan xedatutakoa betez.

Amaitzeko, 39.7. artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmen bidez amaitzeko prozedurari amaiera ematen dion ebazpena ez betetzea arau-hauste oso larritzat hartuko da, uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 62.4.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Horrelakoetan, gainera, isun hertsagarriak jarri ahal izango dira, Lehiaren Defentsari buruzko Legeko 67. artikuluan ezarritakoa eta Araudi honetako 21. artikuluan araututakoa betez; eta, hala dagokionean, uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1, 2 edo 3. arau hausteagatik zehapen espediente ireki ahal izango da.

LAUGARRENA.- PROZEDURA HITZARMEN BIDEZ AMAITU DADIN EZ ONARTZEKO ZERBITZUAK ALEGATU DITUEN ARRAZOIEN DESEGOKITASUNA

Zerbitzuak, bere probidentzian, HIRU sindikatuak prozedura hitzarmen bidez amaitzeko aurkeztutako eskaera ez onartzea erabaki zuen, espediente horretan ezin delako aipatutako akordiorik hartu.

Erabaki hori justifikatzeko, gainera, Zerbitzuak hurrengo argudioak eman ditu:

- a) Lehenik eta behin, Probidentziako hirugarren eta laugarren zuzenbideko oinarrietan azaldu da lehiaren inguruko zehapen espediente bat hitzarmen bidez amaitu ahal izateko espediente horretan interesdun bat baino gehiago egon behar dela. Argudio horri eusteko Araudiko 39.1. artikuluan (*“Zehapen prozedura hitzarmen bidez amaitzeko hasierako erabakia interesdunei jakinaraziko zaie”*), 39.4. artikuluan (*“Konpromisoen proposamena Ikerketa Zuzendaritzak bidaliko die gainerako interesdunei”*) eta 39.6. artikuluan (*“konpromisoek behartutako alderdien identifikazioa”*) xedatutakoa aipatu du. Era berean, legeko zioen azalpenean prozedura hitzarmen bidez amaitzea azaltzen denez, espedientean interesdun bat baino gehiago egon beharra sendotu egiten da: *“prozedura hitzarmen bidez amaitzeko araubidearen malgutasuna azpimarratu behar da; hau da, ustezko arau-hausleak konpromisoen proposamena aurkeztu behar du, Ikerketa Zuzendaritzarekin negoziatu behar du eta Kontseiluari ebazpen-proposamena helarazi behar dio, betiere hori guztia txosten-proposamena egin baino lehen. Ebazpen-proposamen hori emateko ez da beharrezkoa izango*

⁹ Auzitegiak bereizi egiten ditu, batetik, karguen (EZP) jakinarazpena baino lehen aurkeztu den prozedura hitzarmen bidez amaitzen hasteko eskaera eta, bestetik, jakinarazpenaren ostean aurkeztu dena. Zehazki, enpresak karguak jakinarazi baino lehen eskatzen badu prozedura hasteko eta EZPn jasotzen diren konpromisoak proposatzen badira, murrizketaren ehunekoa handiagoa izan daiteke.



espedientean dauden gainerako interesdunak ados egotea”.

Estatuko eta autonomia-erkidegoetako lehiaren defentsarako agintaritzek 16/1989 Legeko 36 bis artikuluan oinarrituta prozedura hitzarmen bidez amaitzeko hartu dituzten erabakiei dagokienez azaldu du soilik egin direla hitzarmen bidez amaitzeko bi akordio¹⁰ eta biak hartu zituela egun existitzen ez den Lehia Defendatzeko Zerbitzuak. Aipatutako bi erabaki horiek jokaera aldebikoen gainekoak izan ziren, hau da, bietan egon zen arau-hausle eta kaltetu jakin bana.

- b) Bigarrenik, Probidentziako bosgarren zuzenbideko oinarrian ezarri da espedientearen xede den jokaerak ezin duela ekarri prozedura hitzarmen bidez amaitzea; hain zuzen ere, funtsean horren helburua da eragin diren ondorioak zuzentzeko konpromisoen proposamena egitea, *per se* jokaera murriztailea baita. Beraz, ondoriorik egon den ala ez gorabehera, kasu honetan ezin da prozedura hitzarmen bidez amaitu, funtsean horren helburua eragin diren ondorioak zuzentzeko konpromisoen proposamena egitea delako.

Zerbitzuak eman dituen argudioak aztertu ondoren, Auzitegiak uste du prozedura hitzarmen bidez amaitzen hasteari aipatutako arrazoi horiengatik uko egitea ez datorrela bat irudi hori arautzen duten xedapenen espirituarekin. Izan ere, irudi hori gure sisteman garatzea oso garrantzitsua izan daiteke, horrela: Batasunean lehiaren defentsarako beste sistema batzuek egin duten bideari jarraituko zaiolako, espedientepean dauden enpresei segurtasun juridiko handiagoa eman ahal izango zaielako, lehiaren esparruko agintaritzek errazago jardun ahal izango dutelako eta, orduan, ahalegin eta baliabide gutxiago baliatu behar izango delako.

Eskaera ez onartzeko lehenengo arrazoiari dagokionez, egia da tresna juridiko hau araupetzen duten legean eta araudian ezarritako xedapenetan aipatutakoaren arabera (modu abstraktuan bada ere) espediente bateko enpresek prozedura bat hitzarmen bidez amaitzeko eska dezaketela eta horrek ukitzen dituen interesdunek prozeduran esku hartu eta oharrak egin ditzaketela.

Auzitegi honen ustez, modu abstraktuan pluralizatzeko forma linguistiko hori erabiltzean legegileak ez du araua aplikatzeko mugatzat jarri nahi izan interesa duen enpresa batek baino gehiagok arauz esku hartzen duten egitezko kasuak bakarrik sartzen direla; aitzitik, forma hori erabiltzeko xedea da interesa duten eta (prozedura erkidean gertatzen den bezala) benetan interes partikularra duten hirugarrenei hitzarmen bidezko amaieraren izapidean esku hartzeko aukera ematea, lehiaren esparruko agintaritzaren aurrean interesa duela agertzeko eta, horrela, prozeduran parte hartzen dutela bermatzeko. Hala ere, zehapen prozedura batean interesa duen hirugarrengorik ez egoteak ez du esan nahi Zerbitzuak prozedura hitzarmen bidez amaitzen hasteko eskaera onartu behar duenik.

¹⁰ Prozedura hitzarmen bidez amaitzeko akordioa SDCrekin (Sistemas de Medios de Pago-Asociaciones de comerciantes y empresas turísticas), 2006ko azaroaren 16an.
Prozedura hitzarmen bidez amaitzeko akordioa SDCrekin (ASEMPRE-CORREOS), 2005eko irailaren 15ean.



Ezin da onartu esatea prozedura hitzarmen bidez amaitzeko aukera duten eta identifikatuta dauden enpresa bi edo gehiagoko espedienteen bakarrik aplikatu daitezkeela. Lehiaren esparruko agintaritzen oinarritzko eginkizuna lehia askea defendatzea da, betiere interes orokorraren ikuspegia kontuan hartuta; horretarako berdina da interesa duten eta modu jakin batean identifikatuta dauden hirugarrenak agertzen diren ala ez, gai horretan interes partikularra justifikatu nahian. Kontrako bidetik, espediente bat amaitzeko baliabide hau arautzen duten xedapenak modu murriztailean interpretatuko lirateke eta, orduan, aplikatzerakoan aukerak mugatu egingo lirateke. Europar lehiaren defentsarako beste sistema batzuetan ezarritako doktrinaren arabera, prozedura baten hitzarmen bidezko amaiera tresna irekia eta malgua izan behar da, lehiaren esparruko agintaritzek eta enpresek erabiltzeko modukoa, eta LDLren 52. artikuluan ezartzen diren funtsezko bi helburuak betetzera bideratu behar da. Hona hemen aipatutako bi helburua horiek:

1. Espedientearen xede diren jokoaren ondorioz lehiak izan dituen ondorioak konpontzea.
2. Interes publikoa behar bezala bermatzea.

Bi helburuok, gainera, hitzarmen bidezko amaiera aplikatzea baldintza dezaketen mugak izan daitezke. Horrenbestez, Zerbitzuak xedapen honek eskaintzen dion negoziatzeko ahalmena erabili behar du legeak debekatzen dituen jokoerak zigortzeko (jarduera errepresiboa), etorkizunean berriz gerta ez daitezen lortzeko (eragozteko eta prebenitzeko jarduera), merkatuei ondo funtzionatzen laguntzeko eta, ondorioz, interes publikoa bermatzeko.

Bigarren argudioari dagokionez, Zerbitzuak uste du espedientearen xede den jokoerak ezin duela ekarri prozedura hitzarmen bidez amaitzea; hain zuzen ere, funtsean horren helburua da eragin diren ondorioak zuzentzeko konpromisoen proposamena egitea, *per se* debekatutako jokoera murriztailea baita.

Egia da lehiaren inguruko jardun murriztaile guztien artean badaudela, ezaugarri orokorrak eta merkatuan ondorioak dituztelako (aurreikus daitezkeen ondorio kaltegarriak), lehiaren esparruko agintaritzek zuzenean zigor ditzaketen batzuk, merkatuan izango dituzten ondorioak aztertu eta frogatu beharrik izan gabe.

Kartelen, prezioen gaineko akordioen edo prezioen gaineko gomendio kolektiboen kasuan, horrelakorik egin dela frogatzen bada, lehiarako eskubidea “per se” jarduera murriztaileei aplikatzen zaienean zehapen ekonomikoa jarriko da; eta, horrelakoetan, lehiaren esparruko agintaritzak ez du frogatu beharrik izango jarduera horiek merkatuan dituzten ondorioak. Dena den, espedientepean dagoen/dauden enpresak edo enpresek espedientea hitzarmen bidez amaitzen hastea proposatzen dutenean, ez zaie aukera hori kendu behar arau-hauste hori egin izanagatik¹¹. Egia da LDEZk ikertu duen jokoera

¹¹ Frantziako sisteman, arau-haustea egin duten enpresek onartutako konpromisoak dituzten karguei ez erantzuteko prozedura arau-hauste mota guztiei aplikatu zaie (akordio horizontalak eta bertikalak, kartelak eta nagusitasuna edukita egindako abusuak). 2007. urtean, Conseil de la Concurrence delakoaren ebazpenen %25 prozedura horren bidez ebatzi zen.



larria denez zehapen ekonomikorik gabeko hitzarmen bidezko amaiera ez onartzea justifikatuta egotea; baina LDEZk interesa duen/duten enpresari edo enpresei prozedura hitzarmen bidez amaitzeko eta zehapen ekonomikoa edukitzeko aukera eman behar die, interes publikoa bermatze aldera.

Azaldutako guztia dela bide, Auzitegiaren ustez Zerbitzuak hitzarmen bidez amaitzeko prozedura hastea ez onartzeko argudiatu dituen arrazoiak ez datoz bat 52. artikuluko xedapenean ezartzen diren edukiarekin eta helburuekin; horrez gain, helburuari dagokionez, Europan eta nazioartean lehiaren esparruko agintaritzak gogo handiz garatzen ari diren antzeko tresna juridikoak aplikatzeko joeraren aurka doaz arrazoi horiek¹².

BOSGARRENA.- HITZARMEN BIDEZ AMAITZEKO PROZEDURA HASTEAN BIDEZKOA DEN.-

HIRU sindikatuaren aurka hasitako prozeduran, eta ebazpen honetako hirugarren zuzenbide oinarrian aipatu den aplikazio-eskema betez, esan behar da *per se* lehia mugatzen duten eta ondorioz hasiera batean zehapen ekonomikoa jaso behar duten jokaerei dagokienez Zerbitzuak ezinbestean eman behar diola elkarteari egozten zaizkion karguen eta horien euskarri diren frogen berri; horrez gain jakinarazi beharko dio negoziazioa ere has daitekeela, hiru hilabeteko epean elkarreak eragin dituen ondorioak konpontzeko konpromisoak proposa ditzan. Hain zuzen, konpromiso horietako bat nahitaez izan behar da egozten zaizkion karguak onartzea.

Karguak onartzen baditu eta horiei ez erantzuteko konpromisoa hartzen badu, prozedura erkidearekin jarraituz gero jasoko duen isuna %10 murriztuko litzaioke. Baina isuna are gehiago murriztuko da sindikatu profesionalak eragin duen kaltea konpontzeko beste konpromiso batzuk proposatzen baditu eta horien bidez lehiaren kultura enpresako sindikatuan eta sektorean zabalduko badu, lehiaren defentsari buruzko ezagutzak sustatu eta ezagutzera emango baditu eta sektorean berriz horrelako arazorik ez sortzea bultzatuko badu. Zerbitzuak konpromiso horiek guztiak onartzen dituenean Auzitegiari proposatuko zaizkio, honek onar ditzan.

Azken finean, Auzitegiaren ustez, Zerbitzuak onartu beharko luke LDLren 52. artikuluan ezartzen den eta Araudiko 39. artikuluan garatzen den hitzarmen bidez amaitzeko prozedura hastea, betiere prozedura hori hirugarren zuzenbideko oinarrian deskribatzen den moduan egiten bada. Horretarako, Zerbitzuak espedientepean dagoen elkarteari jakinaraziko dio zein negoziazio-esparru ezarriko den prozedura hitzarmen bidez amaitzeko; egotzi zaizkion karguak, horien euskarri diren frogak eta enpresak nahitaez aurkeztu beharko duen karguak onartzeko konpromisoa ikusita. Isuna jarriko bazaio ere jakinaraziko dio, horren zenbatekoa murrizteko aurkez ditzakeen beste konpromiso batzuk kontuan hartuta.

¹² ELGak eta ICNk urtero egin dituzten azken bileretan, bertaratutako agintari gehienek zehapen prozedurak negoziatuta amaitzeko sistemen gaineko gaiari heldu diote batez ere.



Aipatu manuak eta oro har aplikagarri diren gainerakoak **IKUSITA**, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak honakoa

EBATZI DU

LEHENA.- Garraiolarien HIRU sindikatuak aurkeztu duen errekurtsua onartu da.

BIGARRENA.- Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari eskatuko zaio Hiru sindikatuari jakinarazi diezaiola prozedura hitzarmen bidez amai daitekeen, isunik jarri gabe, edo soilik amai daitekeen hitzarmen bidez baina isuna ezarrita (adibidez, ikertu den jokaera larria delako). Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak erabakitzen badu prozedura hitzarmen bidez amai daitekeela baina isuna ezarrita, eta Hiru sindikatuak isuna jaso arren prozedura hitzarmen bidez amaitu nahi duela berresten badu, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak hitzarmen bidez amaitzeko prozedurari ekingo dio. Orduan, garraiolarien HIRU sindikatuaren legezko ordezkariari modu informalean jakinaraziko dio zein diren egozten zaizkion karguak, horien euskarri diren frogak eta hasitako espedientea isuna ezarrita hitzarmen bidez amaitzeko egin behar den negoziazioaren esparrua; horretarako, alabaina, ezinbestean proposatu beharko ditu Zerbitzuak egotzi dizkion karguak eta, hala dagokionean, beste proposamen batzuk egin beharko ditu eragindako kaltea konpontzeko, lehia sustatzeko eta etorkizunean LDLn ezarritakoaren kontrako jokaerarik ez gertatzeko.

Honen berri emango zaie Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari eta interesdunei; azken hauei jakinaraziko zaie, gainera, ebazpen honen aurka ezin dela errekurtsorik jarri ez administrazio-bidean ez administrazioarekiko auzien bidean, espedientea prozedura hitzarmen bidez amaitzeko aukera ematen duen izapide hutsa delako.